

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko otsailaren hogeita lauan, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzango Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay García
Jose Luis Viñas Estudillo
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi du Xabier Unanua Goicoecheak eta Jose Peinado Cuestak.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko otsailaren 3an egindako Bilkuraren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko otsailaren 3az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

TOKI INBERTSIOETARAKO PLANEKO (2009-2012) PROIEKTUAK

2009-2012 aldirako Toki Inbertsioetarako Planari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Departamentuak 2009ko otsailaren 20an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, bozketarik gabe onartu da honako inbertsioak 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioetarako Planaren barnean sartzea:

1. Artadia, Ardantzeta eta San Migel kaleetatik Berria kalerainoko tartea zolatzea eta sareak berritzea. Guztizko aurrekontua: 596.599,86 euro. 2010erako programatua. Bere motakoen artean duen lehenespen ordena: 1.

2.- Itsesia kalea luzatzea; kale horrek sarbidea ematen du kiroldegirako, Atakondoa ikastetxe publikorako, eta 0-3 urteko eskolarako. Guztizko aurrekontua: 192.588,03 euro. 2011rako programatua. Bere motakoen artean duen lehenespen ordena: 2.

3.- Artadia eta Ardantzeta kaleetako herri argiteriaren instalazioa berritzea. Guztizko aurrekontua: 71.920,00 euro. 2010erako programatua. Bere motakoen artean duen lehenespen ordena: 1.

4.- Itsesia kaleko herri argiteriaren instalazioa berritzea. Guztizko aurrekontua: 33.500,80 euro. 2011rako programatua. Bere motakoen artean duen lehenespen ordena: 2.

5. Hilerrirako bidea egokitzea. Guztizko aurrekontua: 103.893,24 euro. 2012rako programatua. Bere motakoen artean duen lehenespen ordena: 1.

6.- Hilerria egokitzea. Guztizko aurrekontua: 49.713,48 euro. 2012rako programatua. Bere motakoen artean duen lehenespen ordena: 1.

ALEGAZIOAK IRURTZUNGO SAIHESBIDE PROIEKTUARI

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioak kontseilariak "NA-7010 errepidea (Astrain-Irurtzun), Irurtzungo Saihesbidea izeneko tartea" eraikitzeke proiektua behin-behinekoz onartzeari buruzko urtarrilaren 14an eman zuen 1/2009 Foru Aginduari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko otsailaren 20an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, aipatu proiektuari honako alegazio hauek aurkeztea erabaki da:

Lehena.- 1 bidetik (eginda) 2 biribilgunera doan bideari jarraipena emanen dion bideak, gaur egun, 3 metroko sekzioa, bi aldeetan ilaran aparkatzeko lekua, eta 7 metroko galtzada ditu; hau da, denetara, 17,40 metro. Horrenbestez, parametro horietan osatu beharko litzateke "Irurtzungo saihesbidea" izeneko proiektua.

Bigarrena.- Arrazoi horregatik beragatik, berraztertu beharko litzateke Aralar kaleko 5. eta 7. zenbakietako garajeetarako sarbidea berriro atzealdean ezartzea. Sarbide horrek 1 biribilgunea eginda ematen duen aukera aztertu beharko litzateke.

Hirugarrena.- Saihesbide berria eraikitzeak Donostiarako eta herrira sartzeko trafiko garrantzitsua Bi Ahizpak kaleko 40. zenbakiaren parean dagoen bidegurutzera eramatea eskatuko du. Bidegurutzea egokitu beharko litzateke hartuko duen trafiko berrira egokitzeko.

Laugarrena.- Saihesbideak (herri barnekoa izaki), Lizarra NA-7010 errepidetik NA-2410ra doan tarte nagusian, Aralar kalearen inguruko biribilgunean, pasagune bat izan beharko luke, industrialderako pasagunea delakoz, eta herritarrek aunitz erabiltzen duten pasealekua delakoz.

Bosgarrena.- Hainbat eremutan saihesbideak jabeko pribatuak ditu mugakide. Halakoetan, jabeekin adostasunean, egin beharreko itxiturak egin beharko lirateke.

Seigarrena.- Era berean, saihesbidea zenbait lekutan etxebizitzetatik hurbil dago; beraz, zarataren inguruko guztia aztertu beharko litzaterke.

Zazpigarrena.- Aurkeztutako proiektuan bidegurutze bat dago Manfisa enpresaren parean, Bide segurtasunari eta ikuspenari buruzko alderdiak kontuan hartu beharko lirateke, bestela "gune beltz" nabarmena sor baitaiteke.

Halaber, gune horretan arreta berezia eman beharko litzateke Manfisa eta Saprem industrialderako sarbiderako oinezkoentzako zebra-bideei.

Zortzigarrena.- "Maileguak eta hondakindegia" atalean honako hau dio hitzez hitz:

"Ingurumen Eraginaren Adierazpenaren –IEA- arabera, maileguen kokapena aztertzeke eta zehazteke, harrobi ofizialetatik ekarritako materiala erabili beharko da. Debekatuta dago harrobi berriak irekitzea. Horregatik, harrobirik hurbilekoena bilatu da, Bizkai mendiko Oskia, hain zuzen ere (...)"

Oskia - Gulina harrobia alde batera uzteko arrazoietako bat zen harrobia itxi egin behar zutela. Hona ekarri dugun testuaren arabera, badirudi hori ez dela horrela, edo harrobia berreratu behar dutela (12 urte?).

Nolanahi ere, orain inoiz baino garrantzitsuagoa da arestian aipatutako neurriak hartzea, eta horiei abiadura moteltzeari eta ibilgailuek teknikoki

50 km/h-ko abiadura gainditzeko debekuari buruzko beste batzuk gehitu beharko litzaizkieke obra proiektuan.

Nafarroako Gobernuak (dagokion departamentuak) Irurtzongo Udalari herrigunean barna ibilgailu astunak ibiltzea debekatzeko eskumena eman beharko lioke, zamalanetarakoei izan ezik.

Bederatzi garrena.- Erasanei dagokienez, esan beharra dugu dokumentazioan jasotakoak hainbat akats dituela; horiek behin betiko proiektuan zuzendu beharko liriteke. Saneamenduari eta bestelakoei buruz jasotzen diren erasan horietakoren bat saihesta daiteke baldin eta bidegurutze eta biribilguneek eragina duten tartetan gaur egungo trazaketari eusten bazaio. Horiek eraiki berriak dira, eta, gure iritziz, sestrak aldatzen ez badira, bere horretan utz daitezke.

Akordioa hartuta, saihebidetarako proiektuaren inguruko eztabaida izan da, eta honako ondorioak atera dira:

- Iriarte jaunaren iritziz, saihebidetarako irurtzundarren lorpena da; ez da, inolaz ere, Nafarroako Gobernuak egindako oparia.
- De la Calle jaunak esan du lortu dela trafikoa herritik ateratzea.
- Murugarren jaunak esan du saihebidetarako azken trazaketa, azkenean, aurreikusitakoa izanen dela, eta proiektua inolako justifikaziorik gabe atzeratu dela urte luzetan.

ATAKONDOA IKASTETXEKO LOKALAK ERABILTZEKO ARAUTEGIA ALDATZEA

Atakondoa ikastetxeko lokalak erabiltzeko arautegiari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hezkuntza Batzordeak 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, aipatu arautegia aldatzea erabaki da, honako puntu hauek eragina izanen duten aldaketak sartuz:

1.- Gelak erabiltzeari dagokionez, soilik heziketarako eta prestakuntzarako erabiliko dira, eta gelak erabiltzeko eskaera egiten duten erakundeek edo pertsonak herrikoak izan beharko dute.

2.- Gimnasioa eta psikomotrizitate gela erabiltzeari dagokionez, honako hau gehituko zaio: instalazioak eskola orduetan erabiltzea eskatzen bada, saioak eskola orduetara egokituko dira, eta lehentasuna ikastetxeak izanen du. Honako hau ere gehituko zaio: instalazioetara patioan barrena sartuko da, eta, ekintza eskola orduetatik kanpo antolatzen denean, talde bakoitzak sarrerako eta eskatutako gelako giltza izanen ditu.

3.- Jangelaren erabilpenari dagokionez, sarrera sukaldetik eginen dela zehaztuko da. Halaber, adieraziko da garbiketa behar besteko denborarekin eginen dela, ikasleek erabili ahal izan dezaten. Orobat, adieraziko da garbiketa egin ondoren atezainak zuzendaritzari instalazioen egoeraren berri emanen diola.

4.- Informatika gelaren erabilerari buruzko atal berri bat gehituko da, eta honako puntu hauek jasoko ditu:

- Ikastaroak egiteko eskaera Udaletxean egin beharko da.
- Eskola orduetatik kanpo edo oporretan erabili ahal izanen da. Ezin izanen da udako oporretan erabili.
- Eskaera onartuta, atezaina, zuzendaritzako kideak nahiz garbitzaileak arduratuko dira ikastetxeko eta gelako atek zabaltzeaz. Jarduerak irauten duen bitartean, ikastetxeko atea itxita egonen da.
- Ahal dela, ez dira komunak erabiliko, baldin eta garbitzaileak horren berri ez badute.
- Eskatzaileak edo arduradunak egunero ziurtatu beharko du ordenagailu guztiak itzalita daudela, eta egoera onean.
- Arazorik sortuz gero, eskaera egin duen taldearen arduradunak berehala jakinaraziko dio gertatutakoa zuzendaritzari edo atezainari.
- Gela egunero garbitu eta airatu beharko da.
- Eskatzaileak 200 euroko abala ordainduko dio Udalari.
- Zabarkeriagatik edo erabilera okerragatik ordenagailuetan matxurak edo kalteak sortzen badira, ez da fidantza itzuliko, eta kaltearen konponketa gastua eskatzaileak hartuko du bere gain.
- Ikastaroa bukatuta, zuzendaritza taldeak bermatuko du gela eta ordenagailuak ikastaroa hasi aurretik zeuden bezala daudela orain ere. Hala bada, Udalak fidantza itzuliko dio eskatzaileari.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Gizarte Ongizatea eta Emakumearen Arloa

Udalburuak esan du aurreikusitakoaren arabera, heldu den otsailaren 27an lana eta familia uztartzearen aldeko Lehen Udal Ituna sinatuko dela. Adierazi duenez, Udala itun hori sinatu duten entitateen eta erakundeen artean egonda, afera hau Osoko Bilkuraren Eguneko Aztergaietan jaso beharko litzateke, baina, ahaztuta, ez da hala izan.

Ondoren, udalkideei galdetu die ea arazorik ba ote dagoen dokumentua sinatzeko. Bertan direnek arazorik ez dagoela adierazita, dokumentua Udalaren izenean sinatuko duela, eta puntu hau, onetsia izan dadin, hurrengo osoko bilkuran sartuko dela esan du.

GALDE-ESKEAK

Ez dago.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.